

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

**Okamikako
lamiak**

Okamikako lamiak

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

Gida didaktikoaren azalpena

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, argudiozko testu bat, eztabaida, ekoiztea. Eztabaidan, argudio zilegiak erabiltzen ahalegintzeko eskatuko zaie, hau da, falaziak bereizi eta saihestu egin beharko dituzte. Kanala: ahozkoa. Eremua: lagunartekoa. Hartzailea: zehatza, beste ikaskideak, zeinak aurrez aurre izango baitira. Testua ekoizteko, planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

ARGUDIOARI BURUZKO KONTZEPTUAK :

ARGUDIO-MOTAK :

Argudio zilegiei buruz hausnartzen saiatuko gara. Kasu honetan, falaziaren adibide ditugu erruki ematen saiatzea, ohitura, besteek egiten dutena egitea.

HELBURUA :

Deliberatzea: arazo zein aukera askoren aurrean, alde guztiak aztertzea, arrazoiak emanez. Objektibotasuna lortzeko, arazoari urrundik behatzea. Epaitzea eta arrazoiak azaltzea. IGORLEA eta hartzailea: berdinkidetasuneko harremana.

MODALIZAZIOA :

Zalantza adieraztea. Ziurtasuna adieraztea. Hipotesiak formulatzea.

ARGUDIO-BILKETA (Inventio) :

Argudio zilegiak bilatzea, hartzailearenak kontuan izanda, erantzuna prestatzeko asmoz.

ESTRATEGIA: Kontrastiboa: emaginaren eta lamien ikuspuntuak kontrajartzea.

GAIA LERROALDEETAN banatzeko era eta hartzailearekiko elkarlana:

Hasieran: Gaiaren aurkezpena egitea.

Espedizioan (argudiaketan):

Hartzailearen ikuspuntua eta argudioak kontuan izatea, norberaren argudioak azaltzerakoan.

Amaieran: Esandakoa laburbiltzea.

TESTUALIZAZIOA:

Koherentzia gestuala:

Ahozko argudioan, bereziki zaindu behar da **KOHESIO GESTUALA**; izan ere, esaten

denaren kontrako esanahia adieraz dezake. Horrez gain, TONUA eta SENTIMENDUA-REN/JARRERAREN ADIERAZMENA zaintzeko garrantziaz hausnartu behar da.

MUGIMENDUEI dagokienez, oso garrantzitsua da, gure mezua osatzeko, ENBLEMAK eta ILUSTRAZIOAK erabiltzea.

GAIAREN KOHERENTZIA EDO MANTENUA

Izenen kohesioa:

ANAFORA NOMINALA: Kontzeptuala (munduaren ezagueran du oinarria): Ekintza hori (lapurtzea, denbora luzatzea, irakastea, ordaina ematea...).

Adjektiboazko perpausa: ZEIN(A)... BAIT-.

Aditzen kohesioa :

Baldintza, hipotesiak formulatzeko.

Mundu guztiak horrela jokatuko balu, zer gertatuko litzateke?

Konexioa.

ARGUDIOAREN ANTOLATZAILEAK :

GAIRATZEKO :

Gure artean. Badirudi.

GARATZEKO :

Lehenik eta behin. Besteak beste. Batik bat. Horrez gain.

FROGA-ALDIAN :

baina / hala ere / dena den...

ONDORIOAK SARTZEKO :

Argi dago / Ikusten denez / Hau da / Hobeto esanda, .

DISKURTSOAREN PLANIFIKAZIOA ADIERAZTEKO :

aipatu, lehenik eta behin, bi gauza esango ditut, amaitzeko, gainera.

ELKARRIZKETAREN ANTOLATZAILEAK:

Begirada: Adostasuna/desadostasuna adieraztea.

Gaiez aldatzeko: Beste gai bati buruz hitz egin nahi dut.

Txandak kudeatzeko, moderatzailea jartzea eta arauak negoziatzea.

ANTOLATZAILE EZ-LINGUISTIKOAK : INTONAZIOA :

Harridura. Haserrea. Iseka. Kontsekuentzia.

LEXIKOA :

Aditzen nominalizazioa.

Gidoi literarioa:

Okamikako lamiak

MARI : La-lara-laraa... Ene! Kaixo, lagunok! Lekeitio eta Markina inguruan bizi ginen lamien bi ipuin kontatuko dizkizuet oraingoan. Seguru lamiei buruzko hamaikatxo kontu entzun dituzuela! Batzuetan gaizkile modura agertzen gara; beste batzuetan, berriz, oso zintzoak garela esaten da.

MARI: Nire iritzia jakin nahi baduzue, zuek bezalakoxeak gara: batzuetan oso argiak eta besteetan ez hainbeste. / Gaurko bi ipuinetatik batean barregarri geratzen gara. Bestean, ordea, oso ondo. ... Tira, Okamika eta Okabio herrietako kobazuloetan, betidanik bizi izan dira lamiak; oraindik ere bai, nahiz eta gauez soilik irteten.

MARI: Bada, Okabioko kobazulotik igarotzen zena lamiek harrapatu eta jan egiten omen zuten. / Kar, kar, kar... Horregatik, inor ez zen ausartzen gauez handik pasatzen. Inortxo ere ez! Ikus dezagun zer gertatu zitzaion herriko gizon bati.

TXOMIN: Ohera joan behar duzue, gauez lamiak irteten baitira eta haurrak harrapatu eta jan egiten baitituzte.

GAIZKA: Engainatu egin nahi gaituzu.

TXOMIN: Ez... Bai zera! Egia da.

GAIZKA: Hori gezur galanta da! Frogatzeko, kobazuloaren sarreraraino joango naiz, eta ikusiko duzu nola ez zaidan ezer gertatuko!

TOMAS: Ez, ezta pentsatu ere! Ederki damutuko zaizu!

TXOMIN: (OFF) Baai...

GAIZKA: Joango naiz ba, eta, itzulitakoan, gonbita egingo didazue!

TOMAS: E? Burutik jota zaude? Ezin da hori egin!

TXOMIN: Ez, ez, ez, ez... Ez joan, sinetsiguzu, lamiak arriskugarriak dira!

GAIZKA: Ikusiko dute horiek!

MARI: Gaizkak ez zien jaramonik egin, eta, gauerdian, kobazulora abiatu zen.

GAIZKA: Juuumh! Zer uste dute memelo horiek, ipuin horiekin beldurtuko nautela? Ba, ez horixe! Ni ez naiz ume kakati bat! (Txistuka, kobazulora bidean.)

MARI: Bueno, bueno... Zeuk hala badiozu...

MARI: Artean lamiak afaltzen ari ginen.

ITZAL: Nora joango gara gaur?

MARI: Entzun dut artzain batek ardi asko dituela eta, agian, baten bat kendu ahal izango diogu.

ITZAL: Aja... eta... Non da?

MARI: Baaa... Bolibarren.

ITSASO: Ui! Eta zergatik lapurtu behar dizkiogu, zer egin du?

MARI: Hara, gu ez gara lapurrak, bera baizik.

ITZAL: Horixe!

MARI: Auzokideari lapurtu dizkio, bere zelaira sartu omen zirela eta. Aditu?

ITZAL: Lapur bati lapurtzen diona ez da lapurra. Horrela ikasiko du eskuluze horrek! /

MARI: Orduantxe heldu zen Gaizka gure kobazulora...

MARI: Ausarti plantak egiten... baina, egia esateko, dezente beldurtuta... Sarrerara hurreratu zen...

ITSASO: Halaxe da, bai. Gu ez gara lapurrak. Argi gera bedi guk ez diogula jende zintzoari ezer kentzen; gaizkileei bai, ordea. Ji, ji, ji...

MARI: Aditu al duzue? Norbait dabil.

GAIZKA: Alde! Ospa hemendik!

MARI: Nor ote da?

ITZAL: Nor ausartu ote da ordu hauetan hona etortzen?

ITSASO: Zer egingo dugu? Harrapatu egin behar dugu; bestela, mundu guztia ausartuko da gauez ateratzen, eta agur lasaitasuna!

MARI: Besterik ez genuen behar! Gizakiak gauez mendian barrena ibiltzea! Ezin dugu onartu, gaua gurea da!

ITZAL: Neuk harrapatuko dut, eta ederki damutuko zaio! Kar, kar, kar...

MARI: Kar, kar, kar...

GAIZKA: Hemen ez da inor. Banekien lamien kontu hori ipuina besterik ez zela. / Orain, herrira bueltatuko naiz, eta gonbita irabazi dudala esango diet memelo horiei.

ITZAL: Je, je, je... Kaixo!

GAIZKA: A! A!

ITZAL: (Barre) Zer zabilta ordu hauetan? Ez dakizu gaua gaueko izakientzat dela?

GAIZKA: (Totelka) E-e-ez, ez ne-ne-kien!

ITZAL: Ba, orain badakizu, baina berandu! Ez zara zeure herrira itzuliko!

GAIZKA: Zergatik?

ITZAL: Ez dizute esan gauez harrapatzen duguna egunez jaten dugula?

GAIZKA: Ez, mesedez, erruki zaitez nirekin!

ITZAL: Ezin dut! Herrira bueltatzen bazara, jende guztiaren aurrean barregarri geratuko gara.

GAIZKA: Eeehm... eeehm... Utzi lihoaren penak kontatzen!

ITZAL: Zer?

GAIZKA: Azken nahia egiten utziko didazu?

ITZAL: Tira, tira... kontaizkidazu ba, baina azkar!

GAIZKA: Lihoaren penak kontatuko dizkizut.

ITZAL: Hasperena

GAIZKA: Egon zaitez! / Eeee... Lehendabizi, eee... sorotik atera, gero sikatu...

ITZAL: Eee?

GAIZKA: eeehm... gero putzuan beratu, gero sikatu, gero garramatu, eeehm... gero...

ITZAL: Behingoz bukatuko al duzu, gizona!

GAIZKA: Bai...

ITZAL: Lagunak zain ditut!

GAIZKA: Bai, bai, bai... Eeehm, gero goruan ipini, gero haria egin, gero matazatu, gero harildu...

ITSASO: Ui! Eguna argitzen hasiko du, eta oraindik ez da itzuli!

MARI: Ikustera joango naiz!

MARI: Baina, baina... Zertan zabilta? Zergatik ez duzu kobazulora sartu?

ITZAL: Azken desioa eskatu dit, eta oraindik ez du amaitu! Begira!

GAIZKA: Eeehm... gero ehuna egin, gero jantzia josi, gero jantzia erabili, gero jantzia zikindu...

MARI: Eguzkia irtetera doa, oso arriskutsua da! Ezin zara eguzkitan ibili!

ITZAL: Jasan dudana jasan eta gero, ez naiz joango amaitzear dagoenean!

MARI: Aaaa!!!

GAIZKA: ...gero errekan garbitu, gero jantzia urratu, gero...

OILARRA: Ku-ku-rru-ku! Ku-ku-rru-ku!

ITZAL: E? e? Madarikatua!

GAIZKA: Kar, kar, kar...

ITZAL\MARI: (Ad Lib)

ITZAL: Eguna argitu du! Gaurkoz ondo irten zara, baina hurrengoan ez zara onik aterako!
Aditu al duzu?

GAIZKA: Ja, ja, ja! Tranpan erori zara! Inozoa halakoa! Ja, ja, ja!

ITSASO: (Barre) Mutiko horrek barregarri utzi gaitu. Berearekin atera da!

MARI: (Barre) Aaaai! Beti ezin da irabazi, antza denez! Kar, kar, kar...

ITZAL: Lotsatuta nago. Nola engainatu nauen!

ITSASO: Bueno, ez kezkatu. Biharko gaua hobeto joango zaigu, e? (Barre)

ITZAL: Aaaaaii! Aaaaai ene! Ez da posible!

MARI: Kar, kar, kar...

ITSASO: Aaaaaii! Aaaaaii!

ITZAL: Baina, baina... zer duzu? /

ITSASO: Nik uste dut haurra jaiotzear dagoela!

ITZAL: E? Ziur zaude?

ITSASO: Bai, emaginari deitu behar diogu.

ITZAL: Baina... baina ezin gara irten, eguna argitu du!

MARI: Emaginaren bila joango naiz!

ITSASO: Baina nola?

MARI: Eguzkiaren errainuek ia ez dute basoko hostotza zeharkatzen, ez zait ezer gertatuko
(Ad Lib).

MARI: Eta esan bezala egin nuen. Luzamendurik gabe, eta eguna bazen ere, laguntza bila
abiatu nintzen...

MARI: Basoan zehar hara eta hona ibili nintzen...

MARI: Hemendik izango da... // Bai, bai... hortik... / tra-lara-lara...

MARI: ...azkenean Ilargi emaginaren etxera heldu arte.

MARI: Eeeemh... Bai, hauxe da. Tira. Tra-lara-lara...

MARI: Hantxe aurkitu behar nuen bila nenbilen laguntza.

ILARGI: Egun on! Zer nahi duzu?

MARI: Nirekin etorri behar duzu, emakume bat erditzear dago eta!

ILARGI: Eta... non da?

MARI: Mendan

MARI: Eta hala, Ilargiren laguntzaz, inolako oztoporik gabe jaio zen Itsasoren semea... ume
osasuntsua...

ITSASO: A zer polita!

ILARGI: Ooooo, moñoño!

MARI: (Barre) Hau poza! Ospatu beharra dago!

ITZAL: Bazkari ederra egingo dugu, jaioberriak merezi du eta!

MARI: Herrira itzuli baino lehen, indarrak batu behar dituzu.

ITZAL: Gurekin bazkalduko duzu, eser zaitez.

ILARGI: Eskerrik asko.

ILARGI: Zer gozoa!

MARI: Jan ezazu nahi duzun guztia, merezi duzu eta!

ITZAL: Zure laguntzari esker, haurra ondo jaio da. Asko eskertzen dizugu.

ILARGI: Nire ogibidea da, ez da hainbesterako! / Uuuuhm! A zer gozo dagoen dena...

ITZAL: Bai...

ILARGI: Eeeehm... Barkatuko didazue, baina nola lortzen duzue horrenbeste jaki on?

MARI: Je! Hartu egiten ditugu! Je!

ILARGI: Baina hori lapurtzea da!

MARI: Ez, ez...

ITZAL: Ez horixe! Ez. Guk lapurrei lapurtzen diegu! Eta hori ez da lapurra izatea! (Barre)

ILARGI: E? Zuek hala badiozue...

MARI: (Barre) Ejem.. ejem... Ba, jakiten dugunean artzain batek beste bati zer bait lapurtu diola, guk hari kentzen diogu lapurtutakoa!

ITZAL: Kar, kar, kar...

ILARGI: Hori ez da bidezkoa, emakumeak!

ITZAL: Ba, baten batek eman beharko dio eskarmentua, ez da?

ILARGI: Ene!

MARI: Ja, ja, ja! Horixe, guk eskarmentua eman eta, bide batez, etekina atera!

ITZAL: Ja, ja, ja! Eskarmentua ematen primerakoak gara!

MARI: Kar, kar, kar...

ITZAL: (Musuak)

MARI: Gu lamiok geure zereginetan ari ginen bitartean, Ilargi mahaian eserita zegoen. Behar baino gehiago jan zuen, baina hala ere sobera geratu ziren jakiei begira zegoen. Eta inork ikusten ez zuela uste zuenean, ahalik eta lasterren ogi zati bat hartu eta gorde egin zuen.

ILARGI: Tra-la-la-laaaa Eeeehm, bueno, amaitu dut neure egitekoa, eta badut etxera joateko ordua.

ITZAL: Ondo da. Eskerrik asko egin duzun guztiarengatik!

MARI: Gu ohera joango gara, nekatuta gaude eta.

ITZAL\AMAYA\ILARGI:

MARI: Baina, antza denez, Ilargi ezin zen eserlekitik altxa...

ITZAL: Hara, hara! Badirudi itsatsita zaudela, emakumea! (Barre)

MARI: (OFF) (Barre)

ILARGI: Ai! Eup! Ai! Ezin naiz altxatu!

MARI: Nik esango nuke zeurea ez duzun zer bait daukauzula.

ILARGI: Ez horixe! Nik ez dut ezer hartu!

ITZAL: Ziur zaude? E? Ji. Ji...

MARI: E? Je, je...

ILARGI: Baina...! Bueno... bai... Hmmm! Ogi-zati bat hartu dut. Hain itxura ona zuen, ezin izan dudala saihestu! / Barkatu...

MARI: Eta... zergatik kendu diguzu? Ez al dakizu ez dela lapurtu behar?

ILARGI: Zeuok esan duzue, lapur bati lapurtzen diona ez da lapurra!

ITZAL: Hara bestea! Odolkiak ordainetan, eta geureak bihurtu dizkigu! Kar, kar, kar...

MARI: Baaii! Ja, ja, ja!

ILARGI: (Barre)

MARI: Arrazoi duzu! Guk egiten badugu, zuk zergatik ez, ezta? Kar, kar, kar...

ITZAL: Lezioa eman diguzu eta, hemendik aurrera, ez diogu inori ezer lapurtuko. (Barre)

ILARGI: Hasperenak

ITZAL: Torizu! Merezi duzu egin duzun lanagatik eta irakatsi diguzunagatik.

MARI: (Barre)

ILARGI: Aaaahh! Eskerrik asko!

ILARGI\AMAYA\ITZAL: (Barre)

MARI: Ez esan inori hemen izan zarela! Ados?

ILARGI: Ez kezkatu, ez diot inori esango. Agur

ITZAL: Agur. (Barre)

ILARGI: (Barre)

MARI: Ilargi, lasai-lasai eta pozarren, etxerantz abiatu zen.

ITZAL: Agur. (Barre)

ITZAL: (Barre) Ai, ai, ai... Merezi dugun eskarmentua eman digu (Barre)

MARI: Ederra kontua! Eta orain zerekin biziko gara?

UMEA: Negar

ITSASO: Lasai, polit hori, lasai... Loatxo, loatxo... (OFF-era)

ITZAL: Hemendik aurrera, lan egin beharko dugu.

MARI: Uuuuhm... Nik baratzeak landuko ditut.

ITZAL: Ba, nik ardiak zainduko ditut.

MARI: Eta nik.. nik zer...? Nik zaldiak...

ITZAL: Eta nik... zaldiak eta behiak...

MARI: Zuk uste?

ITZAL: Bai, bai... zaldiak, behiak, txerriak...

MARI: Hara!

UMEA: Negar

MARI: Egia esateko, txora-txora eginda geunden geure bizimodu berriarekin... // Kar, kar, kar... Ah, zer dibertigarria... Ui!

ILARGI: Kar, kar, kar... // Kar, kar, kar... // Kar, kar, kar...

MARI: (Barre) Bueno, haurrok, hauxe izan da dena. Seguru gutaz gorabehera asko entzun dituzuela. Bada, gaurko hau beste bat duzue. Espero dut gustatu izana. Agur! (Barre)

BEHIA: Muuuuuu!

IGELA: Kroak, kroak, kroak...

MARI: (Barre) Beste bat arte! (Barre) (Musuak) Aguuuur!

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea.

Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco.

Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea.

Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1034/04

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**